


ZALDI URDINA

# AFIXA-KARTELA



## AFIXA-KARTELA



### GOGOETA/LANKETA PISTAK:

- Zer erran dezakezu izenburuari buruz?
- Zer diozu afixaz?
- Zein informazio mota agertzen da?
- Afixa eta izenburuak aztertu ondoan zer-nolako antzerkia espero duzu?

### OIER ZUÑIGA AFIXA EGILEAREN HITZAK

Dantzan ageri zaigu zaldia. Zaldi zuria da, paper urratuzkoa eta giza hanka-besoak ditu. Mugimenduan dago baina ez dakigu nora begiratzen duen ezta zein sentipenek zeharkatzen duten. Aurpegirik gabeko zaldi urratua dugu. Zerk urratua? Denborak utzitako markak dira? Edo minak zeharkatutako arrastoak...

Soinean, izarrez betetako unibertsoa du jantzita. Esku batek hutsunea sorrarazten dio; izarrak heldu nahiko balitu legez, baina ezin du. Ez daude agian. Dimentsioak nahasten dira, eta ez dakigu unibertsoa hemen den, atzerago edo aurrerago. Espazioak ireki egiten dira ezker-eskuin, Behera, leiho berdea, belarrezko dantza-zelaiaren gainetik. Atzean eskuinean, beste norabaiteko ate arrosa. Arrasto zuri batek perfilatuta dago atea, esku-besoak bezalaxe. Inork marraztu ditu? Inork urratuko zituen? Inork probatuko ditu?

Paisaia urdinean dagoen zaldia erakargarria da, ustezko alaitasunean festarako gonbita da bere horretan. Arazoez paso egiteko atea, leihoa, izana eta presentzia. Bere baitan ordea, giltzapetuta norbaiten itzala dago. Preso, begirada makur eta hasperenka. Gernikako tragedia urrun daukagu akaso eta hau ere tragedia da.